

Isabel Kapanaga, jarduneko  
presidentea  
Xabier Aizpurua  
Amaia Jauregiberri  
Juan Carlos Jauregui  
Antxon Rodríguez  
Usoa Urbietta  
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

## 17/02 IRIZPENA

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2017ko otsailaren 2ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ierketa Sailaren menpe dauden unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan**

**zuzendaria aukeratzeko eta pertsona bakarreko beste gobernu organoak izendatzeko eta kargugabetzeko prozedurari buruzko dekretua bigarren aldiz aldatzen duen dekretu proiektuari buruzkoa.**

## I. AURREKARIAK

Ekainaren 13ko 3/2008 Legeak, Euskal Eskola Publikoaren Legea bigarren aldiz aldatzen duenak, hautaketa-sistema bat ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetako zuzendaria aukeratzeko. Hautaketa-sistema horrek oinarritzat hartzen ditu berdintasun, publizitate, meritu eta gaitasun printzipioak, horrela aukeratzeko profesionalki egokienak diren hautagaiak eta hezkuntza komunitatearen babes handiena dutenak.

Ikastetxeak berak egingo du aukeraketa, hezkuntza arloko sail eskuduneko ordezkariak eta kasuan kasuko ikastetxeko ordezkariak osatutako batzorde baten bidez. Aukeratzean, baloratu behar dira, batetik, hautagaiak akreditatutako meritu akademiko eta profesionalak (balorazio objektiboa) eta, bestetik, aurkeztutako zuzendaritza-proiektua.

Maiatzaren 8ko 61/2012 Dekretuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak arautzen dituen apirilaren 1eko 46/2014 Dekretuaren Lehen Azken Xedapenak aldatu dute otsailaren 3ko 22/2009 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ierketa Sailaren menpe dauden unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan zuzendaria aukeratzeko eta pertsona bakarreko beste gobernu organoak izendatzeko eta kargugabetzeko prozedurari buruzkoa.

Une honetan, berriro aldatu behar da aipatu arau hori, bertan ezarritakoa egokitzeke araudi hauetako aldaketek eragin dituzten manuetara: 9ko 8/2013 Lege Organikoa –zeinaren helburua baita hezkuntzaren kalitatea hobetzea- eta urriaren 17ko

894/2014 Errege Dekretua, zeinak beraizik garatzen baititu zuzendaritza-eginkizuna garatzeko prestakuntza ikastaroaren (Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoaren 134.1.c) artikulua) eta zuzendaritza-gaitasunak eguneratzeko ikastaroen ezaugarriak. Era berean, hainbat aldaketa egin nahi dira hautaketa-prozedura hobetzeko.

## II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek artikulua bakarra dauka, eta baita ere bi xedapen iragankor eta 2 azken xedapen:

Artikulu bakarrak 22/2009 Dekretuaren artikulua hauek aldatzen ditu:

- 1. "Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila" terminoa kendu eta haren ordean "Hezkuntza arloko sail eskuduna" terminoa jarri.
- 2. **4. artikuluko** 1 eta 2 atalak aldatu, baldintza berriak barne har ditzan.
- 3. Hautaketa-batzordearen osaera aldatzen duen **5. artikuluko** 2, 6 eta 7 atalak aldatu.
- Hautaketa-batzordeen osaerari buruzko **10. artikulua** aldatu.
- 5. **14. artikulua** aldatu, zeinak hasierako prestakuntza programa kentzen baitu zuzendaritza-eginkizuna garatzeari buruzko prestakuntza ikastaroak eta zuzendaritza-gaitasunak eguneratzeko ikastaroak jartzeko.
- 6. Zuzendaria izendatzeari buruzko **15. artikulua** aldatu.
- 7. Zuzendariaren ez-ohiko izendapenari buruzko **16. artikulua** 1. atala aldatu: 3 urtetik 4 urtera luzatzen du gehienezko epea.
- 8. Ikastetxe sortu berrietan zuzendaria izendatzeari buruzko **17. artikulua** aldatu: gehienezko epea 3 urtetik 4 urtera luzatzen du.
- 9. Baremoa ezartzen duen **eranskina** aldatu: lehen fasean 12 puntuko atal berri bat sartzen da "e) ikastetxearen autonomian sakontzea", eta ondorioz, gainerako atalen puntuazioa murriztu egiten da gehienezko 70 puntuak mantentzeko. Bigarren fasean H4, H5 eta H6 atalen idazkera aldatzen da, bat etor dadin maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuarekin, zeinaren bidez ezartzen baitira arlo edo ikasgaiak atzerriko hizkuntzan irakasteko hizkuntza gaitasunen eskakizunak.

Lehen Xedapen Iragakorra zuzendaritza-eginkizuna garatzeko prestakuntza ikastaroari buruzkoa da.

Bigarren Xedapen Iragakorrak dio hasierako prestakuntza programak 2019ko urtarrilaren 3ra arte emango direla.

Lehen Xedapen Gehigarriak urriaren 16ko 204/2012 Dekretuaren lehen xedapen gehigarria aldatzen du (zuzendariaren ordainsari osagarri espezifikoaren zati bat egonkortzen duena), ikastetxeen zatitze eta eraldaketa kasuak ere barne har ditzan.

Bigarren Azken Xedapenak adierazten du noiz sartuko den indarrean dekretua.

## II. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Euskadiko Eskola Kontseiluak uste du dekretu honek hiru aldaketa garrantzitsu proposatzen dituela 22/2009 Dekretuarekin alderatuta. Lehen biak oinarritzko araudiari egokitzeko dira, eta hirugarrena, berriz, koherentzia mantentzeko Oinarritzko Hezkuntzaren curriculum a ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuarekin:

### 1.- Hautagaiek bete beharreko baldintzak aldatzea.

#### e) Zuzendaritza-eginkizuna garatzeari buruzko prestakuntza ikastaro bat gainditu izana akreditatzen duen ziurtagiri bat izatea

Baldintza hau ez da beharrezkoa izango 2019ko urtarrilaren 3ra arte, eta meritutzat hartuko da, 5 punturekin, lehiaketako bigarren fasean (merituak). Horregatik, epealdi horretan hartu beharreko irizpideak aurreikusten dira xedapen iragakorretan.

### 2.- Hautaketa-batzordearen osaera eta funtzionamenduari buruzko beste arau batzuk aldatzea:

- bitik batera murrizten da klaustroko kideek ikastetxeko irakasleak ordezkatzeko aukeratzen dituzten ordezkarien kopurua.
- bitik batera murrizten da ikastetxeko Ordezkaritza Organo Goreneko kideek euren artean aukeratutako ordezkarien kopurua (ikastetxeko irakasle ez direnak). Ondorioz, ez da derrigorrezkoa horietako bat gutxienez ikasleen guraso sektoreko ordezkari izatea.
- barruan sartzen dira Hezkuntza Administrazioaren menpeko ikastetxeren batean zuzendaritza-lanetan diharduten bi pertsona, non

eskaini beharko den hautagaitzari dagokion irakasgaietako bat. Zuzendari horiek dagokion Hezkuntza Delegatuak izendatuko ditu, eta bat Batzordeko presidenteordeak.

- 3 urtetik 4 urtera luzatzen da prozesuan hautatu gabeko pertsonak zuzendari karguan egon daitezkeen gehienezko aldia, eta baita ikastetxe sortu berrien kasuan ere.

*Euskadiko Eskola Kontseiluaren LOMCeri buruzko Akordioan (2014ko otsaila), kontseiluak Hezkuntza Sailari eskatu zion ezen, legeak ahalbidetzen dituen abaguneen barruan, bere gain hartu dezala ahalik eta gehien txikiagotzen saiatzea Kontseilu honen txostenetan azpimarratu diren eragin negatiboak.*

Eskuartean dugun gaiari dagokionez, akordio hartan argi utzi zen Eskola Kontseiluak indar gutxiago duela zuzendaria aukeratzeko prozesuan eta adierazi zen erabakitze eskumena eskola kontseiluengandik zuzendariarengana eskualdatzeak bakarkako zuzendaritza estilo bat markatzen duela kudeaketa demokratikoago eta arduratsuagoaren kaltetan, eta hori atzerapauso argia dela familiek ikastetxearen kudeaketan eta hezkuntza-sistemaren kalitatean parte hartzeko egina duten bidean.

**Aurrekoarekin bat etorriz, Kontseiluak eskatzen du bila daitezela bide berriak familiek parte hartu dezaten zuzendariaren hautaketa-prozeduran.**

**Zentzu horretan, meritu lehiaketaren lehen faseko balorazioa jasotzen duen Eranskinean garrantzi handiagoa eman dakioko f) atalari (Barne- eta kanpo-eragileen parte-hartzea eta lankidetzan), familien ordezkarien balorazioa kontuan hartuz.**

**3.- Baremoan sartzea e) ikastetxearen autonomian sakontzeari buruzko atala,** abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren V. Kapituluari jarraiki, zeinaren bidez zehazten baita Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum eta ezartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan. Atal berri hori ikastetxe publikoen autonomia proiektuari buruzkoa izango da.

Autonomian Sakontzeko proiektua aipatu dekretuaren 32. artikuluan definitzen da: *“Proposamen horretan jasoko dira esparru pedagogikoan eta curriculumean hartu beharreko erabaki bereizgarriak, bai eta antolaketan, kudeaketa ekonomikoan eta langile-kudeaketan hartu beharrekoak ere, irakaskuntza-prozesuak eta ikasleen emaitzak hobetzeko asmoz”*.

**Kontseiluaren iritziz, positiboa da irizpide hori sartzea. Hala ere, berriz adierazi nahi du 236/2015 Dekretuari buruz emandako 15/13 Irizpenean esandakoa, non**

zehaztasun handiagoa eskatu baitzen langileen kudeaketa esparruan, garapen maila txikiena duena delako.

Azkenik, Kontseiluak ulertzen du aurreko aldaketek eta orain proposatzen direnek nabarmen aldatu dutela 22/2009 Dekretua, eta beraz, komenigarria litzatekeela eduki osoa bateratuta jasoko lukeen arau berri bat idaztea.

#### Alderdi puntualak

- **Lehen Xedapen Iragankorra:** 2 eta 3 ataletan, gaztelaniazko bertsioan "...podrán **para** participar..." dioen tokian, "para" terminoa kentzea.
- **5. artikulua:** gaztelaniazko bertsioan, "*Dos personas que estén ejerciendo la dirección de un centro dependiente de la Administración Educativa*" dioen tokian, "un centro **público** dependiente de la Administración Educativa" jartzea, argiago ulertu dadin.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2017ko otsailaren 2an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

JARDUNEKO PRESIDENTEA

Sin.: Isabel Kapanaga Ruiz de Loizaga

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA

**Euskadiko Eskola Kontseiluak irizpen bat eman du Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dauden unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan zuzendaria aukeratzeko eta pertsona bakarreko beste gobernu organoak izendatzeko eta kargugabetzeko prozedurari buruzko dekretua bigarren aldiz aldatzen duen dekretu proiektuari buruz, eta EHIGEk boto partikular bat aurkeztu dio irizpen horri.**

*“Une honetan, berriro aldatu behar da aipatu arau hori, bertan ezarritakoa egokitzeko araudi hauetako aldaketek eragin dituzten manuetara: 9ko 8/2013 Lege Organikoa – zeinaren helburua baita hezkuntzaren kalitatea hobetzea- eta urriaren 17ko 894/2014 Errege Dekretua, zeinak beraizik garatzen baititu zuzendaritza-eginkizuna garatzeko prestakuntza ikastaroaren (Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoaren 134.1.c) artikulua) eta zuzendaritza-gaitasunak eguneratzeko ikastaroen ezaugarriak. Era berean, hainbat aldaketa egin nahi dira hautaketa-prozedura hobetzeko.*

**Proposatzen den aldaketaren helburu bakarra da Dekretua egokitzea bat etor dadin LOMCEk ezartzen duenarekin.**

**Zuzendaria hautatzeko batzordearen osaerari dagokionez, LOMCEk bere 135. artikuluan dio batzorde horretako bost kideak honela aukeratuko direla:**

- **Administrazioaren ordezkariak: batzordeko kideen %50 baino gehiago.**
- **Ikastetxearen ordezkariak: %35 baino gehiago eta %50 baino gutxiago.**
- **Irakasle klaustroaren ordezkariak: gutxienez ikastetxeko ordezkarien %50.**

**Ondorioz, eta LOMCEk agindutakoari jarraiki, 5. artikuluko 2. atala aldatuz gero, kide hauexek izango lituzke hautaketa-batzordeak:**

**Hezkuntza Administrazioak proposatu eta izendatutako 3 kide, hau da, ordezkagarritasunaren %60.**

**Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko 2 kide, alegia, ordezkagarritasunaren %40.**

**Indarrean dagoen Dekretuarekin, hezkuntza-komunitateak ordezkartzaren %80 dauka, baina LOMCEren aldaketarekin, eta ondorioz, eskuartean dugun Dekretuaren aldaketarekin, Hezkuntza-komunitateak ordezkartzaren %40 baino ez du izango.**

**Eta Hezkuntza-komunitatearen barruan, familiek galdu egingo duten orain arte zeukatzen ordezkartza zuzenaren %100a.**

**Bestalde, Hezkuntza Administrazioak ordezkartzaren %20 bazuen indarrean**

**dagoen Dekretuarekin, ordezkartzaren %60a izango du LOMCE eta Dekretuaren aldaketa aplikatuta.**

**Beraz, erabakimena Hezkuntza Administrazioaren esku dago, bigarren planoan eta gutxiengoan utziz Hezkuntza-komunitatea.**

**Deigarria da I. AURREKARIAK puntuan hau esatea:**

*“... , horrela aukeratzeko profesionalki egokienak diren hautagaiak eta hezkuntza komunitatearen babes handiena dutenak”*

**Dekretuaren aldaketak gutxiengoan uzten badu Ikastetxeko Hezkuntza-komunitatea (ordezkartzaren %40arekin) eta erabakitzeko gaitasuna ematen badio Hezkuntza Administrazioari (%60arekin), nola esan liteke helburua dela hezkuntza komunitatearen babesik handiena duen hautagaia aukeratzea?**

**Orobat deigarria da puntu berean hau esatea:**

*“...Era berean, hainbat aldaketa egin nahi dira hautaketa-prozedura hobetzeko”.*

**Ahuldu egiten da erantzukidetasun printzipioan oinarritutako araua, administrazioari kontrol handiagoa emateko.**

**Hori ez da inola ere hobekuntza bat, baztertu egiten baitu hezkuntza komunitatea, ikastetxearen garapenerako eta arrakastarako funtsezkoa den motorra. Inboluzio bat da, dagoeneko gaindituta dagoen iragan baten isla, eta ez genuke horra itzuli behar.**

**Horregatik, eta gogoan hartuz Eskola Kontseiluak behin baino gehiagotan baztertu duela LOMCE, EHIGEk kontrako boto partikular hau eman dio Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dauden unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan zuzendaria aukeratzeko eta pertsona bakarreko beste gobernu organoak izendatzeko eta kargugabetzeko prozedura arautzen duen dekretuari.**

**EHIGE 2017-02-04**